

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Laugarren Hiruhilekoa 2018

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide

Txosten honek, 2018ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neur-tzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia


Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

Testuinguru Ekonomikoa

2018ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,4ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez %2,3ko hazkundea aurreikusten da

Eustat-en arabera, 2018ko laugarren hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko %2,4ko hazkundea izan du aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Erregistratutako tasa aurreko hiruhilekoan baino 2 hamarren baxuagoa izan da (%2,6). Beraz, jadanik hiru epealdi kateatu dira hazkunde txikiagoak jasoz, motel-tze joera leun bati jarraituz.

Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizea 3an kokatu zen 2018ko laugarren hiruhilekoan. Datu horrek adierazlearen susperraldia erakusten du. Konfiantza indizearen batez besteko balioa 2018ko lau hiruhilekoetan 1 izan zen, aurreko urteko emaitza berdinduz. Serieak egonkortasuna erakusten du aurreko urteetako ezkortasunetik urrundu diren balioetan. Datu globalaren oinarrian, ekonomia orokorraren norabideaz duten konfiantza eta lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz duten baikortasuna daude. EAEko familien ustez, ekonomiaren egoera ona da, nahiz eta hazkunde erritmoa geldotuko dela aurreikusten duten.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko martxoa" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %1,2 hazi zela 2018ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan. Beraz, urte osoko hazkundea %1,8 izan zen, 2017koa baino sei hamarren txikiagoa. Tasa hori

2014tik BPGak izan duen txikiena da. Bizitasun apa-lago hori eremuko ekonomia nagusietan nabaritu zen. Espainia berriro izan zen herrialde dinamikoena eremuko bost ekonomia handien artean. Hain zuzen ere, ekonomia espainiarra %2,4 hazi zen iazko azken laurdenean eta egonkortasuneko joera garbia erakutsi zuen. Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, iazko urte osoan eskuratu zuen %2,5eko hazkundea eskari nazionalak ekarritako 2,9 puntuen ondorioa da. Ekarpene horrek 2017koa berdindu zuen. Aitzitik, kanpo eskariak lau hamarren kendu zizkion BPGaren gorakadari. Enpleguari dagokionez, Espainian %2,6ko urte arteko erritmoan hazi zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, hots aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Guztira, lanaldi osoko 463.000 lanpostu baliokide sortu zituen.

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2019 urterako Eurogunerako egindako aurreikuspena %1,3koa da. Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspena altuagoa da, %2,2.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %2,3ko hazkundea aurreikusten du 2019 urterako.




Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko martxoa" txostenak

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %2,7ko jaitsiera izan du urteko laugarren hiruhilekoan; +881 gizonezko eta -4.244 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2018ko laugarren hiruhilekoan (3.363 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 119.674 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %2,7koa izan da eta urte arteko jaitsiera %6,2koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 881 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 4.244 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 53.021 pertsonatan kokatu da eta 66.653 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-998); ondoren, 35-44 urte bitarteko artean (-874), 45-54 adin tartean (-599), 16-24 adin tartean (-562) eta 55-64 adin tartean (-330).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, Bizkaia izan da langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen lurraldea (-%3,8; -2.691). Ondoren, Gipuzkoa (-%1,5; -470) eta Araba (-%1,0; -202).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzeritaren kopurua %0,8an igo da eta bertako langabetu kopurua %3,4an jaitsi da. Lehengo kasuan langabetu kopurua 19.083 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 100.584 pertsonatan.


Ikasketa-mailaren arabera, Unibertsitate ikasketak dituzten langabeak %11,5ean murriztu dira; jarraian Batxilergoko ikasketak dituztenak (-%4,4); Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (-%3,3); eta Derrigorezko ikasketak dituztenak (-%0,4).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan langabezia jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza (-823); (ii) Hezkuntza (-745); (iii) Ostatu gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak (-270). Bestalde, aipatu beharra dago langabe kopuruak hurrengo sektoreetan izandako igorera: (i) Enpleguarekin zerikusia duten jarduerak (+794); Nekazaritza, Abeltzaintza (+188) eta motordun ibilgailuen fabrikazioa, atoiak eta erdi-atoiak (+168).

Afiliazioa Gizarte Segurantzari


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 962.104 pertsonakoa izan da, %2,3ko igoerarekin aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

EAEn 2018ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 962.104koa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %2,3 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,9 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokionez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50). Gipuzkoan, %33koa izan da eta Araban %16koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian gertatu da afiliatu kopuruaren igoerarik handiena (+12.854); ondoren Gipuzkoan (+4.819) eta Araban (+4.384).


Jarduera Ekonomikoari dagokionez, laugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik (%9,0); (ii) Hezkuntza (%7,7); (iii) Osasun jarduerak (%6,4); (iv) Elikadura eta edarien zerbitzuak (%6,3); eta (v) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzari (%5,1). Hala ere, laugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu gehien galdu dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-3.298); (ii) Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta erlazionatutako zerbitzuak (-1.881); (iii) Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdi-atoiak fabrikatzea (-1.020); (iv) Metalezko produktuen fabrikazioa, makinaria eta ekipamentua izan ezik (-691); eta (v) Ostatu zerbitzuak (-641). Afiliatu gehien irabazi dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (+5.569); (ii) Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantzari (+1.878); eta (iii) Elkartze – jarduerak (+1.752).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %1,1ean igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 63.210ekoa izanik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6,6koa da, afiliatu autoktonoena %93,4koa izanik. Atzerritarren artean, emakumezkoen afiliazioa %1,7 igo da eta gizonezkoen afiliazioa %0,6. Lurralde Historikoei dagokionez, atzerritarren afiliazioa Bizkaian eta Araban %2,3 eta %1,7 igo da, hurrenez urren. Gipuzkoan, ostera, %0,7 jaitsi da.

Kontratutako pertsonak eta kontratuak

Laugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %4,6 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 264.175ekoa izan da

2018ko laugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 137.870ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %4,6 gehiago. Gizonen artean, %5,4ko igoera egon da eta emakumeen artean %3,7koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketak-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %46,1ek Derrigorrezko ikasketak ditu, %21,4k Batxilergo ikasketak, %16,6k Unibertsitate ikasketak eta %15,3k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2018ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 35-44 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %25,8ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek izan dute igoera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldeak izan ezik (-%5,4).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %83,7 bertakoa da eta %16,3k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 2,2 puntu gehiago). Atzeritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%31,7), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%25,0) eta Afrika iparraldekoak (%18,3).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 264.175 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1,9 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen igoera %6,4koa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %8,5a kontratu mugagabeak izan dira eta %91,5a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %41,4a kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2,2 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da jaitsiera izan duen lurralde bakarra kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%3,4). Bizkaian eta Araban igoerak egon dira: +%12,1 eta +%7,1, hurrenez urren. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%53,0; 140.013); jarraian, Gipuzkoa (%27,5; 72.598) eta Araba (%19,5; 51.564).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%16,5); (ii) manufaktura industria (%13,1); (iii) administrazio jarduerak (%12,0); (iv) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,9); eta (v) merkataritza (%10,9). Gizonen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%20,6) eta emakumeen artean ostalaritza (%20,5).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %10,2koa izan da eta enplegu tasa %68,1ekoa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** %68,1ekoa izan da 16-64 urte bitarteko pertsonen artean (%71,5 gizonen kasuan eta %64,6 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 935.200ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,4 baxuagoa. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 490.100ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,4 gutxiago) eta 445.100ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,7 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 35-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%82,5) 271.900 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%20,5) 34.800 okupaturekin. Hala ere, laugarren hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 55-64 urte bitartekoa izan da, 4.300 okupatu gehiagorekin (+%2,5).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da enplegu tasarik handiena (%69,5), jarraian Araban (%69,3) eta Bizkaian (%66,8). Joerarik onena izan duen lurraldea Araba izan da %0,1eko jaitzierarekin okupatu kopuruari dagokionez.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%71,6). Ondoren, Industria sektorea (%21,9), Eraikuntza sektorea (%5,4) eta Lehen sektorea (%1,1).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %68,6k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %31,4k aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,6 igo da eta aldi baterako kontratuen kopurua %1,7 jaitsi da. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %82,0 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu gutxiago) eta %18 lanaldi partzialekoak.

Laugarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** %10,2koa izan da (%10,0 gizonen artean eta %10,4 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 106.300 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %7,7 gehiago. Gizonezkoen kasuan, igoera 7.500 pertsonakoa izan da, eta emakumezkoen kasuan, 200 pertsonakoa.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik txikiena 45-54 urte bitarteko taldeari dagokio (%8,3) eta langabezia tasarik altuena, ostera, 16-24 urte bitarteko taldeari (%19,3). Eboluziorik onena izan duen taldea, balore absolutuetan, 45-54 urte bitartekoa izan da, 1.500 langabetu gutxiagorekin (-%5,6).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik txikiena (%8,1), jarraian Araban (%10,8) eta Bizkaian (%11,3). Langabetu kopurua hiru lurralde historikoetan igo da, eboluziorik txarrena Gipuzkoan izanik, %13,1eko igoerarekin.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %43,7k urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %56,3k urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 3,8 puntu gutxiago).

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %40k derrigorrezko ikasketak ditu eta %33k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan beherapena izan duen talde bakarra hurrengo izan da: Batxilergoko ikasketak dituztenak (-5.007).

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %81,2 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerritarrak (%18) eta Europar Batasunekoak (<%1).